



KOOPERAROCK PROIEKTUA

TEATRO PARAISO ANTZERKIA



MATERIAL DIDAKTIKOA · ARTE ETA KOOPERAZIOA

Subvenciona

Colaboran



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

ai arizmendi
ikastola



TEATRO ANTZOKIA
PRINCIPAL
VITORIA-GASTEIZ



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

AURKEZPENA

Kooperazioa da Teatro Paraíso Antzerkia konpainiak, hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan, "Kooperarock" DSS2016EU proiektu barruan sortutako material pedagogiko honen gai nagusia.

Proiektuaren funtsa Artearen bitartez kooperatibagintzaren balioak hedatzen datza. Kooperarock bi-noranzko dituen proiektua da, non edukia eta edukitzailea elkar sustatzen diren, hau da, artea sortzeko modua kooperatibista da eta sortutako arteak kooperatibagintzaren balioak irudikatzen ditu..

1. KOOPERATZEAREN ARTEA

XIX Kooperatibagintza, XIX. mendeaz geroztik solidaritatearen, erantzukizunaren, demokraziaren, ahaleginaren eta berdintasunaren printzipioetan oinarritutako kudeaketa-eredua proposatu duen mugimendu soziala izan da diziplina anitzeko proiektu honen abiapuntua. Proiektu horren helburua izan da euskal kooperatibagintzak azken hamarkadetan lanaren antolaketan, ekonomian edo hezkuntzan izan duen eragina artearen bidez aztertu eta sozializatzea.

Herritarrek emozioen eta ekintzaren bidez kooperatibagintzaren funtsa ulertzeko bizi-esperientzia eta esperientzia artistikoa eraikitzeke elkartu dira izaera desberdineko hainbat eragile: Mondragón Unibertsitatea, LANKI eta Teatro Paraíso Antzerkia.

Ezaguerara hurbiltzeko hausnarketa-prozesu batetik abiatuta, kooperatibagintzaren oinarritzko balioak jorratu dira eta, ondoren, emaitza eskola-komunitatearekin sozializatu da

2. .ONDARE PEDAGOGIKOA

Barne hartu ditugun material pedagogikoak Kooperarock proiektu barruan garatutako bitartekaritza- eta balidazio-jardueretatik datoz. Bi ibilbide mota eskaintzen ditugu:

1. "Kooperarock" antzerki-ikuskizunaren gidaliburu praktikoa, prozesuan parte hartu duten haurrekin izandako lankidetzan oinarritua.
2. Bitartekaritza-esperientzien lau artista arduradunek diseinatutako eta esperimentatutako lau Arte eta Lankidetzaren proposamen. Proposamen hauek lau ikastetxetan esperimentatu dira: Amaraberri (Donostia), Kirikiño Ikastola (Bilbo), San Prudencio Ikastetxea (Gasteiz) eta Arberoa Ikastola (Iparralde).

Gidaliburu honetako irudiak Kooperarock proiektuan parte hartu zuten Arabako ikastetxeek egin dituzte, Arabako Foru Aldundiak antolatutako "Antzerkia eskolara heltzen da" kanpainaren esparruan.

Proiektuaren ondarea zabaltzeko, konplizitateak ezarri behar dira irakasleekin. Honela bakarrik lortuko dugu parte hartzen duten haurren bizipen, emozio eta hausnarketa sakon eta benetakoak sortzea. Jarduera pedagogikoa beti da hezitzaile bakoitzaren bakarkako ekintzen eta komunitate osoaren ekintzen batura.

3. ESPERIMENTATZEKO GONBIDAPENA

Edizio honetan barne hartutako material pedagogikoak honakoa proposatzen du:

- ⇒ Kooperazioaren gaira hurbiltzeko hainbat arlotan estrategiak bilatzea, horretarako prozesu artistikoak erabiliz.
- ⇒ Ikastetxe bakoitzaren beharren arabera ibilbide pertsonalizatu bat diseinatzea.
- ⇒ Lankidetzaren bidea antolatzea.
- ⇒ Ikasgela bakoitzak proposatutako erronkak gainditzeko izango dituen zailtasunak aurreikustea.

Lurralde artistiko ezezagunak aztertzea proposatzen dizuegu, istorio imajinaezinetan murgiltzea eta zuen lankidetzaren gaitasunak aurkitzea.

HELBURUAK

Kanpainaren helburuak honako hauek dira:

- ⇒ Artea eskolara hurbiltzea kooperaziorako tresna gisa, kolektiboaren adierazpena eta komunikazioa ahalbideratzeko.
- ⇒ Ikasketa esperimental eta, era berean, kooperatibismoa nortasun propio bezala aldarrikatzen duten prozesu sortzaileak eskoletan eragitea.
- ⇒ Proiektu artistiko bat komunitatearekin interakzioa daukan prozesu batean bilakatzea.
- ⇒ Haurtzaroan ikusle heziketa indartzea, modu kooperatibo batean garatutako proiektu artistiko baten parte sentituz.
- ⇒ Umeen heziketa kulturalaren prozesuan eta parte hartze kritikoan laguntzea.
- ⇒ Ikusleen formazio prozesua indartzea, izate artistikoaren parte bezala.
- ⇒ Kooperarock proiektuaren ondarea eta proiektu horrek DSS2016 Donostia Europako Kultur Hiriburuaren esparruarekin duen lotura zabaltzea, eta proiektu horretan herritar aktibo gisa parte-hartzearen kontzientzia hartzea.

GIDA DIDAKTIKOA
KOOPERAROCK IKUSKIZUNA



1. BANAKOTASUNATIK TALDEKOTASUNERA GIZA-JARDUERETAN EMAN DAITEKEEN LANKIDETZARI BURUZKO HURBILKETA TAILERRA

Koloredun hariak dituen haril bat ikasgelara heltzen da eta umeen jakinmina pizten du. Nork ekarri du? Zergaitik dago hor? Guretzat al da?

Taldeak ikusi-makusi jolasten du bere zalantzak argitzeko aztarnak lortzeko. Haril honek ze esanahi du? Zer irudikatzen dute koloreek? Gero, harilaren izaerari buruzko hipotesia garatzen dute eta azkenik, bere buruari galdetzen diote: Nork bidaltzen du?

Harilaren azpian gutunazal bat aurkituko dute. Paraíso Antzerkiaren eta DSS2016EU-ren gutuna da. Bertan, umei kooperazioaren harilarekin jolasteko gonbitea luzatzen zaie abentura zirrargarri batean murgiltzeko. Abentura honek errealitate ezezagunei hurbiltzera, galderak egitera eta gaiari buruzko bere ikuspuntua artearen bitartez adieraztera bultzatuko ditu.

Jolas-proposamenak:

⇒ KORAPILATUAK


- *ARMIARMA SAREA*: Partehartzaileek, zutik, hari mataza batetik bestera igorri egiten dute, bota egiten duenak, mutur bat eutsiz, guztion artean Armiarma Sare Kolektiboa sortuz. Bitartean, taldeak kooperazio eta kooperatibismoari buruzko hitzak botako dituzte.
- *SAREA MUGITZEN*: Ibiltzen hasiko dira sarea gehiegi lasaitu edo estutu gabe. Elkarlanari buruzko talde-ondorioak lortzea interesgarri gerta daiteke.

- *OREKARIAK*: Harien ganean ibili daitezke orekariak balira edota hutsunen artean salto egin.
- *EZINEZKO ZEREGINA*: Bi partaidetik bat makurtuko da. Bik haria askatuko dute ondoko lagunak oratzeko eta sarearen arrisku guztiak saihestuko dituzte hau ikutu gabe beste aldera heldu arte.
- **KORAPILOAK DESEGIN**: Harila berregiten saiatuko dira sarea askatuz. Korapiloak egon daitezke eta oso interesgarria izan daiteke hauei nola aurre egiten dieten ikustea. Zailtasunen aurrean zer egin behar denaren buruzko hausnarketa saihestezina da. Lasaitasuna, arreta, pazientzia eta iraunkortasuna.

Gainera, gutunak Teatro Paraíso Antzerkiaren mezu bat du. Bertan, "Kooperarock" ikuskizunaren ikusle bilakatzeko gonbidapena luzatuko da.

Ikuskizun hau kooperatibagintzan inspiratzen da. Horretarako, giza-jarduera baten (laborategian, osasunean, itsasoan...) elkarlana irudikatzen duen talde-argazki bat egitea proposatzen da. Argazkia osatzeko koloredun harila eta gure gorputzak erabili ditzakegu. Ikuskizunaren egunean argazkiaren truke talde-sarrera lortuko dugu.

Ikusleen, irudien eta sorkuntzaren arteko jolas kooperatiboa da eta umeengan "Kooperarock" ikuskizunaz gozatzeko antzerkira joateko irrika sorrarazten du.





2. ARTEA ETA EMOZIOA IRUNDU “KOOPERAROCK” IKUSKIZUNERA BERTARATU

Bidaia hasiko dugu kooperazioaren harilaren zati bat aurkitu arte. Honek kaletik antzerkiaren barrualdera eramango gaitu.

En el hall del teatro encontramos:

✓ *ARGAZKI-ERAKUSKETA KOOPERATIBOA*



Adrián de Hierro argazkilariaren eskutik, *Arizmendi Ikastolako* Lehen Hezkuntzako 5. mailako hurrekin burututako giza jardueretako kooperazioaren inguruko lehen bitartekaritza-proiektuaren amaiera izango da. Bitartekaritza-taldearen kide izan dira *Zuriñe Fernández, Itziar Urretabizkaia, Javier Napal “Nano” eta María Fdez. de Viana*, eta *Rosa A. García* izan dute koordinatzaile.

✓ *PROZESUAREN INGURUKO BI IKUS-ENTZUNEZKO PIEZA*

Ander Elorza bideo-sortzailearen eskutik. *Amara Berri* (Donostia), *Kirikiño Ikastola* (Bilbo), *Colegio San Prudencio* (Gasteiz) eta *Arberoa Ikastola* (Iparralde) ikastetxeekin burututako Arterari eta Kooperazioari buruzko bigarren bitartekaritza-prozesua dokumentatzen dute.



Halaber, **Unai Garcíaren** dinamizazioarekin 30 ikastetxeren parte-hartzea izan duen Arabako Foru Aldundiaren "**Antzerkia Eskolara Heltzen da**" **kanpainan** lortutako sorkuntza artistikoaren prozesua eta publikoarekin izandako elkarrekintza ere dokumentatzen dute.

Besaulki-patitotik jarraituko du eta eszenatokiaren ertzean geldituko da. Bertan hasiko da "Kooperarock" antzerki ikuskizuna.

✓ **SORKUNTZA ESZENIKOA**



Istorio dinamiko eta poetikoa da. Jatorri ezberdineko lau pertsonaiek topo egin eta elkar alderatuko dira. Bere ezberdintasunak aukera positiboa izan daitezkeela jabetuko dira, elkarren osagarri izateko aukera ematen baitiete. Horrela, proiektu kooperatiboa sortzea erabakiko dute, non talde-lanaren, banakako ahaleginaren eta elkarrekiko laguntzaren garrantziaz jabetuko diren.

Hala ere, guztia ez da hain erraza izango. Aurreko eskarmenturik edota erreferenterik ez dituztenez, beraien artean gatazkak izango dira konpromiso maila ezberdinak, erantzukizunen banaketa eta irizpideen arteko ezberdintasunak direla eta. Krisia helduko da eta ea gizaki kooperatiboak edo lehiakorrak diren pentsatzen hasiko dira.

Azkenik, amets kolektiboak aurrera egingo du eta batera bere bizitza pertsonalaren eta kolektiboaren bilakaera ospatuko dute eta ikusleei esperientziara elkartzeko gonbitea luzatuko diete.

Pertsonaien antzezpena bukatutakoan, umeak bere ildo pertsonalak jarraitzera gonbidatuko dituzte kooperazioaren harilaren ostean.

Gizartearen kooperaziorantz doan bidean banakako ekintzak duten garrantzia irudikatzen duen metafora da.



3. BESTE MUNDU BATEKIN AMESTU KOOPERAZIOA ARTEAN PROBATZEKO PROPOSAMENAK

Ikuskizuna bukatutakoan, ikusleengan emozioak geratzen dira. Irudiak, pertsonaiak eta gaiak ume bakoitzaren esperientzia pertsonalekin nahasten dira eta istorioan dauden metaforak bereganatzen dituzte. Horrela, esplorazio artistikoaren ikuspuntutik gaiari buruz hausnartzeko aukera berriak sortzen dira.

Talde bakoitza ikasgelara bueltatzen da ezberdinak direnen arteko kooperazioa irudikatzen duen koloredun harilarekin. Material honekin hainbat proiektu artistikotan murgildu gaitzke.

1. GRAFISMOAK ETA OROIGARRIAK.

Partaide bakoitzak haril kolektiboaren koloredun hari bat hartuko du eta hau erabiliz bizitako istorioaren oroitzapenak marraztuko ditu. Gero, jarduerarekin aurre egin daiteke binaka, launaka, etab eginez.

Banakako eta talde-oroitzapenek ikuskizunean dauden gaiei buruzko elkarrizketa-eztabaida izatera bultzatuko dituzte, hala nola, besteenganako konfiantza, gatazken kudeaketa, taldearen parte zarela sentitzea, gaitasunak.

2. SOINU-BIDEAK.

Hariekin korapiloak egingo dituzte esploratu behar duten bide luzea sortuz. Bide hau ibiltzeko, kooperazioa irudikatzen duten gorputz-perkusio egitura erritmikoak asmatuko dituzte. Bukatzeko,

kooperazioaren garrantzia eta ideia hauen indarra adierazten duen erritmo kolektibo bakarra sortuko du taldeak.

3. BIZIKIDETASUNAREN DANTZA.

Binaka, dantza bat bat-batean egingo dute. Bat mugimendu zuzena izango da gorputza mugituztenkatuta dagoen soka batekin lagunduta. Bestea mugimendu makurra izango da eta hau bere hariaren garapenaren eta bere gorputzaren akonpainamenduaren bitartez adieraziko da.

Dantza mugimendu bi moten arteko elkarrizketa kolaboratiboa balitz eratzen da, komunikazio eta liskar momentuak izanik.

4. PERFORMANCE KOOPERATIBOA.

Gela bat ikastetxearen sarreran bilduko da eta koloredun hariak korapilatuz eskolaren hormetan kooperazioaren bidea marrazten hasiko da. Bigarren gelak bere ekintza hasiko du lehenengo gelak bukatu zuen lekuan eta horrela jarraituko dute gela guztiek parte hartu arte. Horrela, eskolaren kooperazioa irudikatuko da.

Partaide bakoitzak ibilbideari ematen dion itxura erabakiko du, aurrekoak eginikoa eta zeharkatzen duen tokia kontuan hartuta.

Zehaztutako orduan performance ikuskizuna hasiko da. Ume bakoitzak bere gorputza hormaren gainean dagoen hari zatia besarkatuz jarriko du, harien eta gorputzen katea sortuz. Guztiek batera bere proiektu kooperatiboari buruzko kanta abestu dezakete.

Irakasleek ume bakoitza bere hariarekin irudikatzen dituzten argazkiak egingo dituzte. Hauek inprimatuko dira eta benetako ordenean jarri, bizitako esperientzaren aztarna den irudien sekuentzia sortuz.

5. "MUNDU KOOPERATIBO BATEKIN AMESTU" INSTALAZIOA

Hariak elkarrekin korapilaturik, koloredun marra luzea eratuko dute. Hau erabiliz, ikasgelaren zoruan alegiazko lurraldearen inguruak marraztuko ditugu, "KOOPERAZIOAREN LURRALDEA".

Barrualdean, lurraldean bizi diren emozioak eta ezaugarriak irudikatuko dituzten objektuak jarriko ditugu. Herritarrak umeen argazkiekin adierazi daitezke.

Bukatzeko, musika oroitarazle bat inspirazio hartuta guztiek sorkuntza berria aztertuko dute..



ESPERIMENTAZIO PROPOSAMENAK
ARTEA ETA KOOPERAZIOA


ARTEA ETA KOOPERAZIOA

IKASGELAKO PRAKTIKA ARTISTIKOAK

Bitartekotza prozesuan parte hartzen duten artistek kooperazioari lotutako jarduera artistikoari buruzko proiektuak garatzeko proposamenak utzi dizkigute hainbat ikastetxeko ikasgeletan bere proiektua garatu ostean.

Bakoitza diziplina artistiko batetan (antzerkia, zirkua, musika, arte plastikoak eta ikusizkoak...) ardatzen dira, proiektuaren ardatz den diziplinartekotasuna mantenduz beti ere.

5 tailerrek osatzen dute zikloa eta ikasgelan jarduteko inspirazio lez hartu daitekeen erabateko esperientzia eskaintzen dute. Proposamen bakoitza ikastetxe bakoitzaren errealitatera eta garatzen den hezkuntza-proiektuaren beharretara doitu behar da normala denez.




Bi alorren definizio eskematizatu hau oinarri hartuta, taldeko kideen parte-hartze aktiboa sustatuko duten lantegi-sekuentzia bat garatzea proposatzen da, Egoeraren Pedagogiaren esparruko hainbat printzipio pedagogiko baliatuz.



LEHENENGO PROPOSAMENA

ZIRKUA ETA ELKARLANA

Proposamenaren egilea:



JAVIER NAPAL "NANO" (Iruñea)

Zirku-ikasketak Oreka Zirko Eskolan. Arte Dramatikoa Nafarroako Antzerki Eskolan.

MATERIALAK

- ⇒ Koloredun hariak dituzten harilak
- ⇒ Koloredun sokak, bat partaide bakoitzeko
- ⇒ Kartoi kutxak
- ⇒ Kooperarocken hitzak
- ⇒ Ohial handia
- ⇒ Kartoizko hodiak
- ⇒ Egunkari orrialdeak (bat partaide bakoitzeko)

1. EMANALDIA: KOOPERAROCK/ KOOPERAZIOA EZAGUTU

ABIAN JARRI

Armairuak

Ikasleak ikasgelaren atean itzarongo ditugu eta bitartekaria aurkeztuko dugu.

Begiratu eta ez ukitu bezalako oinarrizko jarraibideak emango dira. Ikasgelan hainbat soka txiki egongo dira biribil baten itxurarekin eta haiek biribil handiago bat osatuko dute. Bertan, biribil txikiak osatzen dituzten bezalako koloredun sokez osatutako pilota bat egongo da eta klaseko beste leku batean galdera ikurra duen kutxa bat egongo da. Horren barruan Kooperarocken hitzak jarriko dira.

Zirkura sartu

Partaideak sartuko dira eta behaketa denbora bat izango dute hainbat galdera erantzuteko, hala nola, zer ikusi dute? Zergatik jarri dira biribilaren inguruan? Zergatik ez dira sartu barnealdera? Edota bitartekariak antzematen duen beste edozein egoera. Biribilean eta klasean dauden beste objektuen esanahiari buruz hitz egin daiteke.

Biribil txikia norbanakoa irudikatzen du eta biribil handia, taldea. Norbanakoak gabe ezin da talderik osatu.

Guztiak bere lekura...

Partaide bakoitza biribil baten barnean egon beharko da. Batzuk besteak baino txikiagoak izango dira eta ezin da ez soka zapaldu ezta biribiletik atera. Behar izanez gero, kideek lagundu ahal dute. Taldearen kide guztiak biribilaren barnean jausi gabe egotea izango da helburua.

Izen artistikoa

- Biribil baten atzean jarriko dira eta sokarekin bere izenaren lehenengo letra marraztuko dute. Bakoitzak letra eta bere izena esango du.
- Eskuman duten lagunari emango diote letra eta lagunak utzi dien letra erabiliz bere burua deskribatzen duen hitz bat esan beharko dute.
- Azkenik, izen artistiko bat hartu eta izen horren lehenengo letra marraztu beharko dute.


Ikasle bakoitzak kolore ezberdineko soka izango du eta lau talde egingo ditugu, bakoitza ikasgelaren izkina bakoitzean.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Kooperarock jolasa:

Helburua: kooperarock hitza sortzea taldeen artean.

- Ikasgelaren erdialdean Kooperarock osatzen duten letra guztiak jarriko dira.
- Talde bakoitzak 30 segundu izango ditu hitz bat sortzeko letra guztiak erabiliz.
- Ondo dauden letrak ezin dira gehiago mugitu.
- Honelako pistak eman ahal dira: lehenengo eta azken letrak letra berbera dira.



Momentu horretan kooperarock, argazkiak, antzerki ikuskizuna, etab. zer diren azalduko dugu eta aste honetan airetiko argazkiak egingo ditugularen berri emango da. Horrek zertan datza azalduko dugu ere.

Kontatuko dizuet zerbait:

Ba al dakizue aurten Donostian zerbait garrantzitsua gertatzen ari dela, ezta?

Ez, Zinemaldia ez, hori atzean utzi dugu jada.

Bai, aurten Donosti Europako kultura-hiriburua da.

Hau gertatzen denean, ospakizun handia dago, non hainbat pertsona eztabaidatzeko, biltzeko, laguntzeko eta lurralde honen kulturaz gozatzeko elkartzen diren.

Lortu diren ondorioen artean honako hau izan da: guk ezaugarri oso sendoa dugula... bai... asko ditugu... baina... gaur egokitzen zaiguna Kooperatibagintza da.

Eta guk, Teatro Paraisotik, uste dugu... mmm... zergatik ez aztertu kooperatibagintza ... baina ikuspuntu artistikoa izanda.

Hori dela eta, bi ekintza diseinatu eta sortu ditugu:

Alde batetik, zuek lehenak ikusten izango zareten umeentzako antzerki ikuskizuna, Amaia antzerkian egingo baita aurrestreinaldia. Bestetik, zuekin garatzeko proiektua, zuek konta dezakezuelako guk beste edota gehiago. Hori horrela da.

Pentsatzen eta pentsatzen ibili ostean... gure lagun bat agertu zen, Adrián, baina... ez da foto matoietako argazkilaria, eh? Argazkilaria artistikoa da. Berak, sortzeari eutsi ezin dionez, honako hau proposatu zigun:

Jan Von Holleben izena duen argazkilaria alemanierak umeekin argazki kolaboratiboak apartak egiten ditu. Zer deritzozue bere lana inspirazio hartuta argazkiak egitea gure umeak protagonistak izanik??

Eta noski.... Izugarri gustatu zitzaigun. Gaur abentura hau hasiko da eta ostiralean bukatuko da... baina... ba al dakizue zer gertatuko zaien sortuko ditugun argazkiei? Arrasateko aurrestreinaldian eta Donosti, Bilbo eta Gasteizeko estreinaldietan, baita Iparralden ere, irteeran erakusketa bat egongo dela... zuen erakusketa. Ez al da zirrargarria?

FEEDBACK

Korapilatua

Harila hartuko dugu eta bere inguruan eseriko gara biribil bat sortuz. Momentu horretan harila pertsona bati emango diogu eta honek beste bati, guztiok hariaren zati bat oratuta dugun arte.



Harilarekin egin daitezkeen jolasak:

- **Orekariak:** hari guztiak zoruan daudelarik, banaka harien ganean ibiliz mugituko dira orekariak balira bezala.
- **Ohe elastikoa:** Beharrezkoa den baino gehiago estutu barik sarea altxatuko dugu. Imajinatuko dugu pertsona bat saltoka dabilela eta guztiak batera mugitu beharko gara pertsona hau jasotzeko.
- **Ezinezko zeregina:** Taldearen erdiak bere hariaren zatia eskumako lagunari emango dio (bat bai, bat ez). Bitartekariak hariaren ertzak gora eta behera mugitzeko eskatuko du eta leku batean geldirik uzteko. Haririk ez duten pertsonak sarearen erditik pasatu beharko dira hariak ukitu gabe. Bukatzeko, lekuak elkartrukatu dituzte.
- **Korapiloa desegin:** harila berriro egin beharko da pertsona guztien artean.

2. EMANALDIA: EZETZ ASMATU

ABIAN JARRI

Armairua

Gelatik kanpo umeak itxarongo ditugu eta berriro ere begiratu eta ez ukitu jolasean arituko garela azalduko zaie.

Zirkura sartu

Sartzean, gelaren erdialdean kartoizko hodiak estaltzen dituen oihala egongo da eta beste materialak gelan zehar ipiniko dira orden zehatza jarraitu gabe.

Behatzeko eta imajinatzeko denbora emango zaie eta ea oihalaren azpian zer dagoen galdetzen zaie: objektua al da? Edota, objektu asko? Gelan ze objektu daude, zeintzuk falta dira? etab.

Jarraian, oihalaren zehar ukitzeko aukera luzatuko zaie imajinatu dutena egia ote den egiaztatzeko. Geroago, oihala kontuz kentzeko eskatuko zaie jausi ez dadin eta, behin kenduta, kartoizko hodiak aurkituko dituzte.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Mikado



Mikadon jolasteko ordua heldu da. Bakoitzak kartoizko hodi bat atera behar du beste hodiak mugitu gabe, pertsona guztiek bat izan arte.

Ikasgela bi taldetan banatuko da eta beste taldeko kide bat aukeratuko dute (talde bakoitzean ezin da pertsona bera hartu) eta hodiaren bitartez deitu beharko dute. Gero, alderantziz egingo dugu.



Estutu baina ez gehiegi

Bikote bakoitzeko hodi bat izanda, bien artean orekan mantendu behar dute. Jarraibideak honako hauek dira:

- Gorputzaren edozein atalarekin presioa egin daiteke
- Ezin da oratu
- Geldirik hasita, gero mugitu behar dira.
- Isilik, kideari zer egin behar duen esan gabe.

Aldaerak:

- Hirunaka.
- Taldeka.
- Ikasgela osoa.

Entzutearen garrantzia nabarmenduko dugu.

Asmakuntzak

Hodi guztiak baztertuko ditugu, bat izan ezik.

- Objektu bat gogoan izanda, hodia hori balitz erabiliko dugu; adibidez, arrauna, betaurrekoa, etab.
- Bigarren aldian asteko gaiarekin lotura duen objektua izan behar da, hau da, zirkua.
- Aldaera (denboraren arabera)
- Lau taldetan istorio bat sortu behar dute hodia asteko gaiarekin loturiko objektu bat balitz erabiliz.



FEEDBACK

Antzezpenak

Talde bakoitzak bere istorioa aurkeztuko du.

Igerilekua

Biribil bat osatuz denbora egongo edozeinek emanaldiari buruz zeozer esan nahi izango balu.

3. EMANALDIA: ARTISTA

ABIAN JARRI

Armairua

Gelatik kanpo umeak itxarongo ditugu eta berriro ere begiratu eta ez ukitu jolasean arituko garela azalduko zaie.

Gela hainbat bide ezberdin dituen labirintoa balitz antolatuta dago. Aurreko bi emanaldietan erabili diren materialez osatuta egongo da labirintoa: kartoizko hodiak, zapitxoak egindako hariak eta bigarren egunean hodiak estaltzen zituen oihal gorria. Gainera, gela guztitik egunkari orrialdeak egongo dira.



Labirintoa

Gelara banaka sartuko dira eta espazioarekin elkarri eragiteko denbora izango dute. Ondoren, eseri egingo gara eta gure buruari galdetu: zer ikusi dugu gelan? Gauza berririk al dago? Zerbait falta da? Beste gauzarik espero genuen?

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Zertarako balio du?

Pertsona bakoitzak egunkari orrialde bat hartuko du eta berarekin nahi duguna egingo dugu, apurtzea izan ezik. Ez bazaie ezer bururatzen, bitartekariak txapela, Supermanen kapa edota beste edozein gauza proposatuko ditu.

Malabaristak



Ondoren, egunkari orrialdearekin pilota bat egingo dute, gehiegi estutu barik, eta hau jaurtitzen hasiko dira pixkanaka-pixkanaka. Bitartekariak aukera ezberdinak adieraziko ditu: esku ezberdinekin jaurti eta jaso, jaurtiketa eta bilketaren artean txalo bat eman, gorputzaren atzetik jaurti, oso garai edo oso baxu jaurti, hankaren azpitik, lagun bati pasatu. Azkenean, pilotak izkina batera jaurtiko dituzte.

Momentu horretan, zoruan egongo diren hodiak hartuko dituzte eta esku batekin eta bestearekin orekan mantenduko dituzte, baita sudurrarekin, hankarekin, bizkarretik pasatuz, jaurtiz, etab. ere. Hodiak izkina

batetan bukatuko dute.

Emanaldia gero eta azkarrago dinamizatuko da pentsatzeko denbora izan ez dezagun; horrela, akatsari garrantzirik ez diogu emango.

FEEDBACK

Roulotta

Zoruan etzanda emanaldia gogoratzen bukatuko dute:

- Labirintoa
- Zertarako balio du?
- Egunkariak
- Kartoizko hodiak
- Azkenean isilik atsedenaldi denbora izango dute.

Igerilekua

Partaide bakoitzak bere erritmora eseri eta emanaldiari buruz mintzatuko da. Ez da beharrezkoa biribilean egotea edota pertsona guztiak eserita egotea.

4. EMANALDIA: ZIRKUA / ANTZEZPENA

ABIAN JARRI

Armairua

Gelatik kanpo umeak itxarongo ditugu eta berriro ere begiratu eta ez ukitu jolasean arituko garela azalduko zaie, baina gaur batera sartuko dira.

Gela ilunpean egongo da eta astean zehar erabilitako objektuekin hainbat instalazio prestatuko dira aurretiaz. Izkina batetan hodiak egongo dira; beste batetan, sokak eta harila; hirugarrenean, kutxa misteriozua eta hitzak;

eta laugarrenean, partaideek ekarri dituzten objektuak. Gelaren erdialdean oihal gorria egongo da.

Taldearen ikusmina

Bitartekariak linterna eskuan duela sartuko da eta instalazioak altura eta distantzia ezberdinetik argizatuko ditu. Aukera ezberdinak erabiliz ibiliko da.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Sua eta herriko enparantza



Oihal gorriaren inguruan eseriko gara, gaua argitzen duen sua balitz bezala, istorio bat kontatzeko prest:

“Orain dela urte asko herri txiki batera zirku ibiltari bat heldu zen pailazoekin, malabaristekin, dantzariekin, orekariekin, aztiarekin, zeremonia maisuarekin...”

Hasiera hori erabiliz, lau talde ezberdinetan zirkuari buruzko istorio bat asmatu eta entseatu beharko dute.

FEEDBACK

Kritika

Biribil batean, denbora utziko da edozeinek zerbait esan nahi ezker emanaldiari buruz.

Ezberdintasunik al dago argi gutxirekin edo argi askorekin ikustearren artean, goitik edo behetik ikusi?

Zelan ibili dira lan-taldean?

Zelan izan da erabakiak hartzeko prozesua?

Elkarlanean ibili dira edo taldean egin dute lan?

Zer gustatu zaizu?

5. EMANALDIA: ERRONKEN EGUNA

ABIAN JARRI

Sarrera askea

Gelako atea zabalik egongo da eta beraiei ezer esan gabe gelara sartzen utziko ditugu. Gelako lau izkinetan kartoizko hodiak egongo dira eta emanaldietan erabilitako materialak gelan zehar egongo dira. Behatzeko denbora izango dute edota beraiek behar dutenerako. Gelaren erdialdean biribil bat egingo dute.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Erronken eguna dela azalduko dugu.

Zer da erronka bat? *“Burutzen zaila den helburua edo gogoia, aurre egiten dionarentzat suspergarria eta desafioa izanik.”*

Erronkak

Taldea lau talde txikiagotan banatuko da eta zazpi erronka dituztela azalduko zaie:

- Esku batekin orekari eustea 10 segundoz
- Esku batekin orekari eustea 30 segundoz
- Bi pertsonen artean orekari eustea bakoitzak gorputz-atal ezberdina erabiliz. Ezin izango da eskua erabili.
- Talde txikiko hiru pertsonen artean orekari eustea, mugitzen dauden bitartean.
- Hodia jaurti eta txalo bat, bi txalo eta hiru txalo eman hau erori gabe. Talde txiki osoa aldi berean.
- Talde txikiko partaide guztien artean orekari eustea.
- Talde handiko partaide guztien artean orekari eustea.



FEEDBACK

Egia ala gezurra

Gelako izkina bat egiaren aldekoa izango da eta bestea, gezurraren aldekoa. Baieztapenak adieraziko dira eta bakoitza zuzen deritzon izkinean jarriko da.

- Gaur asteartea da
- Kooperazioa eta laguntza gauza bera dira
- Laguntza kooperazioa da
- Kooperazioa egoteko gutxienez bi pertsona egon behar dira
- Kooperazioa nik nahi dudana egitea da
- Ikastolan bakarrik kooperatu daiteke
- Jantokian ezin daiteke kooperatu
- Bulego batean bakarrik lan egiten baduzu, ezin duzu kooperatu

- Kooperatzeko pozik egon behar da
- Kooperatzea denok elkarrekin opera egitea da
- Kooperazio transmititzeko zer egin behar da...

Igerilekua

Denbora izango dute edonork zerbait esan nahi izan ezkeru.



2. PROPOSAMENA

ARTE

PLASTIKOAK/IKUSIZKOAK

ETA KOOPERAZIOA

Proposamenaren egilea:



MARIA FDEZ. DE VIANA

Arte Dramatikoko ikasketak Getxoko Eskolan. Arte gradua Arte Ederren Fakultatean eta Arte eta Ikuskizun-zientzien Masterra (EHU).

MATERIALES

- ⇒ Koloredun zapitxo-harila (gomendagarria da bere elastikotasuna dela eta)
- ⇒ Koloredun zapitxoak (soka, artilea)
- ⇒ Musika eta bideo eta musika-errepuzitzailea.
- ⇒ Material sortzailea: orriak eta kutxak (tamaina eta kolore ezberdinak, margoak, arkatzak (tenperak edota akrilikoak izan daitezke ere, eskuekin edota pintzelarekin margozteko), kartoia, oihalak, plastikoak, itsasteko zinta edo zeloa.
- ⇒ Gelako materialak: mahaiak, aulkiak, zapatak...
- ⇒ Antzezpenean erabiltzen diren materialak (pertsonek, sortutako espazioak...).
- ⇒ Zoruan termometroa marrazteko oihalak edo xingola.

1. EMANALDIA: LEHENENGO BEGIRADA

ABIAN JARRI

Sarrera eta hurbilketa

Espaziora sartuko dira eta zapitxoak egindako biribil txikiez osatutako biribila aurkituko dute. Biribil baten barnean bitartekaria egongo da zapitxo-harilarekin. Agurtu eta bere burua aurkeztuko du. Gero, norbaiti

bola pasatuko dio bere izena esan dezan. Horrela, harila bata besteari pasatuko diote guztiek bere burua aurkeztu arte.

Hobeto elkar ezagutu daitezten, bere buruari buruz zerbait adierazten duen **alegiatzko abizena** asmatuko dute: nolakoak diren, zer gustatzen zaien, zer egiten duten... Zapitxoarekin bere lehenengo letra marraztuko dute bere biribilean. Lehenengo letra guztiak gure aurrean egongo dira biribil bat sortuz.

Harila bata besteari pasatuko diote berriro, baina oraingoan bere **alegiatzko abizena** esan eta dramatizatuko dute (gorputza eta ahotsa erabiliz). Harilak **sare** bat osatuko du (bolak duena, zapitxoaren ertz bat oratuko du esku edo oinarekin, pasatu baino lehen).

Biribilaren partaideen erdiak, txandaka, hau da, bat ez bat bai, bere zapitxo zatia aurrekoari emango dio eta biribiletik irten egingo da. **Ezinezko zereginean** jolastuko dira (biribilean daudenak zapitxo zatiak jaitsi edo igo egingo dituzte bitartekariak seinale bat egin arte sarea posizio ezberdinetan utziz. Kanpoan daudenak sarea zeharkatu beharko dute zapitxoa ukitu barik, bata besteari lagunduz. Gero, eginkizunak aldatuko dituzte.



Sarea zoruan utziko dute eta **orekariak** balira bezala ibiliko dira. Guztiak sarearen hasiera edo bukaerara heldu beharko dira. Soka lasaia gurutzatu dezakete amildegi handia zeharkatuz, hari-harian baleude bezala.

Harila berregiten dute guztien artean. Talde-lana objektu bitartekaria berriz osatzeko.

Kooperarock



Zer egin dute harila batzean? Talde-lana, elkarlanean ibili dira. Horregatik, gaur eta egunero batera daude. Bere interes sortzailetik jaiotzen den proposamena era kooperatiboan osatzeko.

DSS20016EU programaren barneko proiektua izan da Kooperarock eta, ildo horretatik, zuekin kooperazioaren inguruan hitz egitera, jostatzera eta sortzera etorri nahi izan dugu, betiere Artea tresna gisa erabiliz.

- Zer da zuen ustez kooperazioa?
- Eta Artea?
- Nola aritu ahal gara elkarlanean artean edo artearen bitartez?

Bere ideiei buruz jardungo dira. Ondoren, artean eta artearen bitartez duten eginkizun kooperatiboaren bilaketa hasiko duen **bere “objektu” pertsonaiaren** sorkuntza hasiko dute (orriak, kartoia, oihalak, egunkariak, zapatak, margoak...).

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Gure pertsonaia

“Eban arrantzalea”, proiektzioa ikusiko dute, Irudi mirudika 3. Zenbakia [Http://marrazkiak.euskal-encodings.com/](http://marrazkiak.euskal-encodings.com/) eta artean eta artearen bitartez duten eginkizun kooperatiboaren bilaketa hasiko duen bere **“objektu” pertsonaiaren** sorkuntza hasiko dute (orriak, kartoia, oihalak, egunkariak, zapatak, margoak...).

Binaka jarriko dira. Bere pertsonaia erakutsiko dute eta berari buruz hitz egin. Ikusleei zer eta nola esango dieten erabakiko dute.

Antzezpena

Bikoteko partaide bat hasiko da istorioa kontatzen. Bere pertsonaia den bikoteak eszena dramatizatuko du.

Lekuen aldaketa

FEEDBACK

Jakituriaren biribila

Biribil handi bat sortuz eseri egingo dira bere pertsonaiekin. Bata besteari galderak egingo diete, hala nola, nolakoak diren, zer gustatzen zaien, bere buruaren aurkezpena... Bere sorkuntzen ezaugarriak handiagotuko dira eta, horrela, ezaugarri hauei buruz duten ezagutzan sakonduko dute.

2 EMANALDIA: MUSIKA ELEMENTU LEZ

ABIAN JARRI

Musika marraztu

Sartzean margoak eta tamaina ezberdineko orriak edo paperak aurkituko dituzte gelan zehar. (Tenperak, pintzelak edo margo akrilikoa duten platerak egon daitezke)

Bi musika ezberdin entzungo dituzte (bata bestearen ostean) eta musikak bururarazten diena margoztuko dute.

- “La mañana” Edvard Grieg (3' 40'')
- “Treno a las víctimas de Hiroshima” Krzysztof Penderecki (8' 38'')

Musika bakoitza bukatutakoan, gure sorkuntzak espazioan zehar jarriko ditugu guk nahi dugun modura, bai zoruan bai hormetan. Espazioan pintzak dituzten sokak egon daitezke. Bere lekua erabakitzen duten bitartean marrazkiak ikusi eta komentatuko dituzte.



ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA.

Nire pertsonaia eta espazioa

Bere pertsonaia hartzen dute eta beraiek sortutako eta guztien artean sortutako espazio eszenografikoetan ibili eta bizitzen balute bezala jolastuko dute, musika entzuten duten bitartean.

Binaka jarriko dira (aurrreko emanaldian egon ziren bikote ezberdinak sortuz) eta biek pertsonaiekin jolastuko dute. Aurkeztutako materiala eta honek sorrarazten duenari buruzko esperimendazio askea.

Proiektzioa ikusiko dugu



“Igel Egarritsua” ipuina ikusiko dute, Irudi Mirudika 11. zenbakia; <http://marrazkiak.euskal-encodings.com/>

Lau edo bost pertsonen osatutako taldeetan gainerako partaideei aurkezteko istorio komun bat asmatuko dute. Girotzeko nahi duten musika erabakiko dute.

Hasierako jolasean erabili dituzten soinuak sartuko dituzte.

FEEDBACK

Konposizio korala

Eszenografia eta pertsonaia guztiak espaziotik zehar utziko dituzte, lauki kolektibo handia sortuz. Panoramika handi bat erabiliz argazkia atera dezakete. Jolastokian dauden hostoak hartu ditzakete gure konposizioan sartzeko.

Guztiak aztertuko dute eta elementuek taldean sortzen duten istorioa eta bata bestearen osagarri diren moduari buruz mintzatuko dira. Konposizio korala handi bat mintzatzeko da gure taldeari buruz.

3. EMANALDIA: HITZ EGITEN DUTEN IRUDIAK

ABIAN JARRI

Irudiak

Sartzean, pantailan lau irudi proiektatuko dira musika batez lagunduta. , Vasili Kandinsky artista abstraktu eta espresionistaren lau margolan izango dira. Lan abstraktuek bere irudimena aske utziko dute. Honako hauek izan daitezke edota artista honen beste lan batzuk:

- Improvisation 31, 1909-1913. (Irla bat, itsasontzi bat itsasoan, eguzkia)
- Composition IV, 1911. (Hiri bat, eraikinak eta errepideak)
- Several Circles, 1916. (Unibertsoa, planetak)
- Composition X, 1939. (Edalontzi bat esne gailatekin)

Beraiek zer diren uste dutenari buruz mintzatuko dira:

- Bitartekariak sortutako istorio bat kontatuko die lanak zer diruditen abiapuntutzat hartuta.

“Bazen behin batean emakume bat edalontzi bat esne gailatekin gosaltzen zuena beti.

Egun batean, hiritik paseatzen zebilela, uharte batean bizitzea gustatuko litzaiokeela pentsatu zuen, non ez legoke eraikuntzarik, autorik, errepiderik ezta zaratarik.

Aintzira eta nabigatzeko itsasontzi bat hurbil edukitzea eta leku ezezagunak aurkitzea gustatuko litzaioke.

Gaua heltzerakoan aintziraren ertzean etzan eta zeruari, izarrei eta planetei begira egotea eta han lo gelditzearekin amesten zuen.

Baina esnatzen zenean, gauza bakar batean pentsatzen zuen: edalontzi bat esne gailatekin gosaltzea...”



ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Espazioa eszenografia lez

“Karolina” proiektzioa ikusiko dute Irudi Mirudika 14. zenbakia, <http://marrazkiak.euskal-encodings.com/>

Lau edo bost pertsonak osatutako taldeetan espazio hoiek pantailan proiektaturiko atzealde eszeniko lez irudikatzeko istorioa asmatuko dute. Beraiek erabakiko dute zer esan nahi duten, ordena, bere pertsonaien artean bertan garatuko diren egoerak...

Aztertu eta beraiei buruz mintzatuko dira.

FEEDBACK

Bilkura orokorra

Biribil bat eginenez jarriko dira eta partaide bakoitzak talde-muntaia buruzko ekarpen bat egingo du.

4 EMANALDIA: ERABAKI KOOPERATIBOAK

ABIAN JARRI

Ilunpetan dagoen espazioa

Sartzean **musika** bat joko dugu (zerbait instrumentala, alaia baina lasaia. Naturaren soinuak). Objektu ezberdinak (aulkiak, oihalak, mahaiak, paperak, fardelak, egiturak...) espazioan zehar banatuta egongo dira balizko eszenografiak sortuz. Argiak itzalita egongo dira eta bitartekariak zehaztasun ezberdinak argitzen dituen linterna izango du eskuan. Izan daitekeenari buruz mintzatuko dira, jolastuko dute. Ahotsa eta gorputza harri, mendi, ibai, zuhaitz, animalia, zeruertz... bilakatuko dira. Bere pertsonaiak gelan egongo dira eta, hala nahi izan ezker, jolasean sartu ahal izango dituzte.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Gorputz eszenografikoak

Binaka jarriko dira. Bere gorputzak eszenografia lez erabiliko dituzte bai bere pertsonaiantzako bai bere buruontzako.

“Eguzkia eta Ilargia” proiektzioa ikusiko dute Irudi Mirudika 4. zenbakia, <http://marrazkiak.euskal-encodings.com/>



Hau guztia praktikan jarriko dute 4 edo 5 pertsonak osatutako taldeetan. Objektuak eta eraikuntzak erabiliko dituzte. Material guztiak begi bistan egongo dira erabili ditzaten.

Aztertu eta honi buruz mintzatuko dira.

Sortutakoari buruzko ipuin kolektiboa

Material guztia espazioan egongo da, baita pertsonaiak eta sorkuntzak ere. Emanaldi honetan eta aurrekoetan bizitako eta sortutako guztia gogoratuko dute eserita daudelarik. Biribil bat eginez, bakoitzak esaldi bat esango du eta esaldi guztiak dramatizatu behar den istorioa osatuko dute.

Talde-sorkuntzari buruzko erabakiak hartu

Ze zati diren interesgarrienak eta pertsonaia ezberdinen istorioak nola lotuko dituzten erabakiko dute, landutako guztia eta bururatzen zaien guztia erabiliz.



- Preparakuntza eta entsegu orokorra egiten hasiko dira.
- Ea elementurik falta den eta eszenak nola osatu behar dituzten aztertuko dute.
- Guztia antolatuta eta pertsona bakoitzak duen papera ezarrita utziko dugu.

FEEDBACK

Koloredun airea

Ahoz gora etzanda egongo dira begiak itxita. Hasierako musika jotzen hasiko gara. Bitartekariak erlaxatzen eta bere arnasa kontrolatzen lagunduko die barruko aireak duen bidea hitzez adierazten duen ariketa erabiliz. Ariketa honetan gure buruan airea koloreztatuko dugu oxigenatzen duen gorputz atalak tindatuz.

5 EMANALDIA: ESPERIENTZIA ESZENIKOA ETA PARTEKATU

ABIAN JARRI

Prestaketa – entsegu orokorra

Antzezpenean duten lekuan jarriko materialak. Bere parte-hartze eta hitzaldientzako prestatuko dira. Guztia prest dagoela eta ea lagunen batek laguntzarik behar duen egiaztatuko dute.

Entsegu orokorra egingo da, ikusleekin benetan nolakoa izango denaren hurbilketa egitearren.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Antzezpena

Antzezpen eszenikoa lurralde kooperatiboa lez.

- Guztia prestatuko dugu antzezpen eszenikorako.
- Antzezpen eszenikoa eta honen grabazioa.
- Komunikazioaren biribila: nola sentitu diren, nola egin diete aurre ustekabeei...

FEEDBACK

Termometroa



Marra zuzena egingo da xingolarekin zoruan. Ertz batean gehi seinua (+) jarriko da egi borobila irudikatuz ete beste ertzean, minus (-) erabateko gezurra irudikatuz. Erdia markatuta egongo da eta erdiko posizioa izango da aukera biek balio dutela pentsatzen duten edo zein aukeratu ez dakiten pertsonentzako.

Adierazpen ezberdinak emango zaizkie eta beraiek termometroan leku bat aukeratuko dute uste dutenaren arabera. Emaitei buruz jardungo dira, eztabaidatuz eta argudiatuz eta talde ondorioak lortuz.

Hona hemen adierazpen batzuk:

- Kooperazioa eta laguntza gauza bera dira
- Laguntza kooperazioa da
- Kooperazioa egoteko gutxienez bi pertsona egon behar dira
- Kooperazioa nik nahi dudana egitea da
- Ikastolan bakarrik kooperatu daiteke
- Jantokian ezin daiteke kooperatu
- Bulego batean bakarrik lan egiten baduzu, ezin duzu kooperatu
- Kooperatzeko pozik egon behar da
- Kooperatzea denok elkarrekin opera egitea da
- Kooperazio transmititzeko zer egin behar da...

Indiar gurpila

Guztiak lurrean eseriko dira biribil batean eta harila jarriko da. Bata besteari harila emango diote eta ea esperientziaz gozatu duten, zer ikusi duten, norbaiti eta bere buruari zerbait eskertu nahi dioten esango dute. Bitartekariak benetan eskertuko die bere partaidetza eta konpromisoa.

3. PROPOSAMENAK

MUSIKA, ANTZERKIA ETA

KOOPERAZIOA

Proposamenaren egilea:



ITZIAR URRETABIZKAIA (Donostia)

Interpretazio ikasketak Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean (TAE) Gradua Lehen Mailako Hezkuntzan eta Antzerki-pedagogia eta Dramatizazio Masterra.

MATERIALES

- ⇒ Tamaina eta kolore ezberdineko oihal zatiak.
- ⇒ Harila.
- ⇒ Musika eta abestiak ipintzeko bozgorailuak.
- ⇒ Inprimaturik dauden lau argazki. Kasu honetan honako hauek erabili dira:
 - Velázquez-en meninak
 - Emakumeak swing dantzatzen
 - Floridako hondartza
 - Bulldog txakurtxo

1 EMANALDIA: ARTEHUNAK

ABIAN JARRI

Oihalen biribila

Partaideek gelara sartuko dira eta kolore ezberdineko oihal luzanga zatiez egindako biribila aurkituko dute. Bakoitza oihal zati baten atzean jarriko da. Bitartekariak bere burua aurkeztuko du eta bertan zergatik dagoen azalduko du. Ondoren, ikasle bakoitzari bere izena esatea eskatuko dio.

Abizen misteriotsua

Ikasle bakoitzak (behin izenen txanda bukatuta) bere gustu edo nortasunarekin zerikusia duen abizen bat asmatuko du (adibidez, Ainhoa Berritsu, Josu Makarroia, etab.). Aurrean duten oihal zatiarekin abizen horren lehenengo letra marraztu beharko dute zoruan. Txandaka, bakoitzak bere izena eta asmatutako abizena aurkeztuko du (interesgarri gerta daiteke dramatizatzea).

Ondoren, eskumara mugituko dira eta bakoitza bere lagunak idatzi duen letraren atzean eseriko da. Suertatu zaien letra berriarekin beste abizen bat asmatuko dute beste baten ezaugarriarekin norberaren ezaugarri bat asmatu baitaiteke.

*Ikasle bat blokeatzen bada, guztion artean lagunduko diogu suertatu zaion letra duten hitzak esanez.

Harilarekin jolastu



Biribilean gaudelarik oraindik ere, baina oraingoan zutunik, bitartekariak norbaiti harila jaurtiko dio eta sokaren ertz batekin geratuko da. Harila hartzen duen pertsonak berriro jaurtiko du guztiok soka zati bat eskuetan izan arte.

Jaurtitzean izena eta asmatutako abizena esan dezakete.

Behin sarea harilarekin osatutakoan, partaide guztien artean sarea altxatu eta eskumara edota ezkerrera mugituko da, horrela sarearen hariak mugituz. Zer gertatuko da asko estutzen badut, edota lasaitu edo korrika egiten badut edo geldirik geratzen banaiz? etab.

*Aldaera:

- Sarea zoruan utziko dugu eta bere gainean ibiliko dugu orekariak bagina bezala edota hutsuneen artea saltoka ibili.
- Bi partaidetik bat makurtu egingo da. Bik soka soltatuko dute albokoak ora dezan eta sarearen arrisku guztiei aurre egingo diete hau ukitu gabe beste aldera heldu arte.
- Harila berregiten saiatuko gara sarea deseginez. Korapiloak egon daitezke eta interesgarria izan daiteke hauek konpontzeko modua. Saihestezina da zailtasunen aurrean zer egin behar denaren buruzkoari hausnarketa. Lasaitasuna, arreta, pazientzia eta iraunkortasuna.

ADIERAZMENA ETA KOMUNIKAZIOA

Balio anitzeko oihala

Biribilean ikasle bakoitzak oihal zatia zertarako erabili daitekeen proposatuko du. Bakoitzak duenari balio ezberdin bat emango dio erakustaldi bat eginez (adibidez, gorbata bezala balio badu, lepoan jarri beharko du gorbata bat balitz bezala).

Oihala eta ni

Ikasle bakoitzak figura bat proposatuko du oihala erabiliz (gorputzaren luzapena, apaindura, etab. izan daiteke). Ondoren, forma horri aurpegi



espresio bat gehituko diote (beraiek aukeratzen dutena). Azkenik, soinu bat gehituko diote bizirik dagoen figura bilakatuz.

FEEDBACK

Zazpi ezberdintasunak

Binaka jarriko dira, bat estatua izango da eta bestea, behatzen duena. Behatzaileak lagunaren posizioa oso ondo aztertuko du. Ondoren, buelta emango du eta estatuak zazpi elementu aldatuko ditu (adibidez, eskua gerrian egon beharrean orain buruan jarriko du). Lagunak buelta ematen duenean berriro, estatuak aldatu dituen zazpi elementuak susmatu behar ditu.

2 EMANALADIA: ITXURAK EGITEN

MATERIALAK:

ABIAN JARRI

Orkestra zuzendaria

Ikasle batek mugimendua edo ekintza hasiko du eta besteak bera imitatu behar dute. Gelan lekualdaketak edota erritmo eta intentsitate aldaketak gehitu daitezke. Orkestra zuzendariaren lekua aldatzen joango da bitartekariak hala erabakitzen duenean.

Geroago, orkestra zuzendariak ahotsa bideratuko du. Lehengo eta behin, “koroari” tonu neutroa eskatuko dio eta eskuak mugitzen doan heinean tonu hau aldatzen joango da. Eskuak igotzen dituenean, besteek tonua igoko dute eta eskuak jaistean, tonua jaitsiko dute.

*Ariketaren lehenengo zatian musika erabili daiteke, adibidez, Yann Tiersenen “La Veillée” abestia.

Domino efektua



Ikasle guztiak biribil bat eginez jarriko dira. Bitartekariak bere ezkerrean dagoen pertsonak berehala errepikatuko duen mugimendua proposatuko du. Bata bestearen segidan egingo dute “domino efektua” lortu arte. Kontzentraturik lan egiten badugu eta besteak entzuten

lan egiten badugu gauza handiak lortu ahal ditugunaren ideia nabarmenduko da.

*Aldaerak:

- Gorputzarekin egindako soinua izan daiteke (txalo bat, izterrak eskuekin jo ditzakegu, oinatz gogorra, etab.).
- Ahotsa gehitu.
- Norabidea aldatu.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Ispilua

Gela osoa binaka jarriko da eta bi ilara handi egingo dute bikoteak aurrez aurre jarriarik. Bikoteko kide batek mugimenduak egingo ditu eta bestea bere ispilua izaten saiatuko da.

*Hasierako mugimenduak txikiak izatea eta astiro egitea komeni da. Behin aurrera egin ahala, mugimendu handiagoak edo azkarragoak sartu daitezke.

Soka ikusezina

Binaka, aurreko ariketaren lekua mantenduko dute. Bikotearen kide batek bere lagunaren gorputz atal bat soka ikusezin batekin lotuko du (bitartekariak gorputz atal ezberdinak esango ditu). Urrundu egingo da eta alegiazko soka hori beregana erakartzen hasiko da. Nola mugitzen da bere kidea?

* Aldaerak:

- Gure lagunak pisu handia du eta ahalegin handia egin behar da soka mugitzeko.
- Oso arina da eta ez da ia ahaleginik egin behar guregana erakartzeko.
- Hurbilago edo urrunago dagoen leku batetik erakarri daiteke soka.

Moldatu nazazu

Binaka, bat buztina izango da eta bestea, eskultorea. Buztina den pertsona eskultoreari bere burua moldatzen utzi beharko dio eta berak jartzen duen posizioan geratu. Gero, eskultoreak egindako forma azaltzen eta saltzen saiatuko da (objektua izan daitezke). Behin eskultorea guztiak bere lanak erakutsi eta gero, eginkizunak aldatuko dituzte (eskultoreak buztina izango dira).

Zer diñozu?

Lau pertsonak osatutako taldeetan banaturik, denboraldi zehatzean beraiek aukeratutako lana sortuko dute (kuadro bat, egoera bat edota pelikula baten sekuentzia bat izan daiteke). Besteek zer den asmatu beharko dute.

*Aldaerak:

- Bitartekariak gai zehatz bat proposatu dezake.
- Bi talde handitan banatu ahal dira.
- Soinuak gehitu daitezke mugitu gabe.



3 EMANALDIA: IMAJINA DEZAGUN.

ABIAN JARRI

Tren eroa

Guztiak ilaran jarriko dira bata bestearen atzean trenaren bagoi bat balira bezala. Lehenengoak osatzen dauden trenaren mugimendua zehaztuko du. Besteek bere mugimendua imitatu beharko dute tren osoa modu zehatzean mugitu arte. Bitartekariak "TUNEL" hitza esaten duenean partaide guztiak lekuan geldituko dira eta hankak zabalduz tunel bat sortuko dute. Atzean dagoen pertsona tuneletik narrasean joango da lehenengo posiziorarte eta mugimendu berri bat proposatuko du.

- Aldaerak: aurrean dagoen pertsonak buelta emango du, partaide guztiak buelta ematera behartuz eta trenaren norabidea aldatuz.

Bide zaila

Partaide guztiak gelan zehar ibiltzen hasiko dira eta bitartekariak jarraibide ezberdinak emango ditu ibiltzerakoan:

- Zorua sutan dago
- Orekariak gara
- Ibai oso zabal bat gurutzatu behar da harriz harri saltoka ibiliz
- Zorua oso itsaskor dago

Askotan instintiboki norbait laguntzeko elkarlanean aritzen garela edota norbaiti laguntza eskatzen diogulaz jabetzea.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA.

Nik zu ezagutzen zaitut

Partaideak espazioan ibiliko dira eta norbaitekin aurrez aurre egingo dute topo. Nola erreakzionatuko dute?

- Pertsona hori denbora luzean ikusi ez dugun pertsona bada
- Pertsona horri dirua utzi bagenio eta oraindik ez badigu dirua itzuli.
- Pertsona hori oso gustuko badugu.
- Pertsona horrek bibrazio txarrak ematen badizkigu.

Portada gara

Gela lau pertsonak osatutako taldeetan banatuko da. Talde bakoitzak "aldizkari portadaren" argazkia prestatuko du. Bitartekariak gai ezberdinak proposatuko ditu (rock talde bat, erregeen familiak, loteria irabazleak, etab.).



Argazkiaren konposizio osoa kontuan hartu beharko dute. Talde bakoitzak argazkia mobilarekin egingo dute eta gero argazkia aztertuko dute. Talde-konposizioa lortu dute? Adierazi nahi zutena benetan irudikatu dute? Bere aurpegiak emoziorik transmititzen al dute?

Gorputz espresioa eta jarrera landuko da. Talde-sentimenduaren garrantzia aintzat hartuko da. Guztiak sintonian egon behar dira eta elkarlanean arituz irudia sortu desiratutako emaitza lortzeko.

Hiruretako berriak

Gela bost edo sei pertsonak osatutako taldeetan banatuko da (aurreko taldeak mantendu daitezke). Albistegi bat sortu beharko dute gizateriarentzako oso garrantzitsua den berri bat sartuz. Horretarako, aurkezle bat edo bi, gertatutakoaren irudiak egingo duten pertsonak (hasieran irudiak finakoak izango dira, hau da, argazkiak balira bezala) eta lekukoak behar izango dituzte. Talde bakoitzak prestatzeko denbora izango du.

Aurkezleek albistearen berri emango dute eta gero irudiak erakutsiko dituzte (ikasleek sortutako argazkiak ikusiko ditugu). Azkenik, istorioaren lekukoekin hitz egingo dute gertatutakoari buruz mintzatzeko.

*Aldaera:

- Errepikatutako mugimendua duten irudiak gehitu daitezke, konexioa hondatuta balego bezala.
- Benetako zuzeneko konexioa izan daiteke; hori dela eta, edozer gauza gerta daiteke.

Taldeak albistea nahi zuen moduan transmititu al du? Talde-helburua lortzarren bakoitzak besteekin elkarlanean aritzearen garrantzia kontuan hartu. Kasu honetan, ikusleek albistearen berri izatea da garrantzitsuena.

4. EMANALDIA: IRUDIEKIN LAN EGIN.

ABIAN JARRI

Orbana

Klase osoa gelan zehar jarriko da eta batek “orbana” izango du (beronek erabakitzen duen lekuan). Esku bat orbanaren gainean duelarik besteak harrapatu beharko ditu.

Norbait ukitzen duenean, pertsonak honek zikindu duenn lekuan esku bat jarri beharko du eta bien artean besteak harrapatu beharko dituzte, guztiak zikinduta egon arte.

Gero, bakoitzak bere orbana erakutsiko du eta besteek bakoitzaren posizioak aditzera ematen diena esan beharko dute.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Argazkiak

Lau taldetan banatuko dira eta talde bakoitzari argazki bat emango zaio (kuadro ezagun bat, leku baten argazkia, garai ezberdina, etab. izan daiteke) Argazkiak ikustean bururatzen zaiena abiapuntutzat hartuta, inprobisazio bat proposatu beharko dute. Antolatzeko denbora laburra izango dute.

Abestiak irudietan



Talde bakoitzak guztiak ezagutzen duten abesti bat aukeratuko du (oso garrantzitsua da taldekide guztiak abestia ezagutzea). Zer bururatzen zaie abestiaren hitzak entzutean? Lehenik, abestiaren hitzak zeri buruz hitz egiten

dutenari buruzko testu-azterketa egingo da taldeka. Gero, abestiak esaten duenari buruzko irudiak prestatuko dituzte (beraiek aukeratutako parrafoan) besteei hurrengo egunean aurkezteko. Materialen zerrenda egin dezakete irudien aurkezpena egiteko elementurik ekarri behar izan ezker.

Abestiak honako hauek izan daitezke: Ilargia (Ken Zazpi), Furra, furra (Oskorri), Behin batean Loiolan (Egan), Lau teilatu (Itoiz), Begitara begira (Vendetta)...

5. EMANALDIA. LANKIDETZA DRAMATIZAZIOA.

ABIAN JARRI

Talde bakoitzak hamabost edo hogei minutu izango ditu abestiei buruzko bere irudiak prestatzeko.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA



Talde bakoitzak irudiak irudikatuko ditu jatorrizko musika erabiliz (bitartekariak aurretiaz prestatuko ditu) edota beraiek abestuz. Irudiek lotura ezberdinak izan ditzakete, melodia edo hitzen baten bat edo errepikatzen den leloa baino ez harturik inspirazio lez.

FEEDBACK

Ikasleek nola sentitu diren pentsatuko dute. Nahi zutena islatu ahal izan dute? Talde-lanean aritzen eroso sentitu al dira? Zer gehiago kontatzea gustatuko litzaieke? Egindako hainbat ariketetan kooperazioaren garrantzia nabarmendu..



4 PROPOSAMENA

ANTZERKIA ETA KOOPERAZIOA

Proposamenaren egilea:



ZURIÑE FERNANDEZ (Amurrio - Araba)
Musika Hezkuntzan diplomaduna UAM (Madril) USP
(Sao Paulo). Arte Dramatikoa William Layton
Antzerki Laborategian (Madril)

MATERIALAK

- ⇒ Koloredun harila, ahal bada zapitxoaz eginda bere elastikotasuna dela eta
- ⇒ Harilaren material berdinez egindako koloredun sokak
- ⇒ Egunkariak
- ⇒ Hauek estaltzeko oihal handia
- ⇒ Pintzas.
- ⇒ Sokak.
- ⇒ Aulkiak.
- ⇒ Argazki kamera edo bideokamera..

1. EMANALDIA: BIENVENIDO MR. MARSHALL

ABIAN JARRI

Partaideak helduko dira eta koloredun sokaz egindako biribil txikiez osatutako biribil handi bat aurkituko dute.

Biribilaren erdian haril bat egongo da, Kooperarock proiektuaren sinboloa.

Baliteke partaideak intuitiboki biribilaren inguruan esertzea; bestela, hori egiteko gonbitea luzatuko diegu.

Nire izena

Bitartekariak bere izena esango du eta berari buruz zer dakiten galdetuko die eta zertarako etorri den eta hasteko zer egingo duten azalduko die.

Zoruan eskuekin sortzen dituen taupadak jarraitzea proposatuko die eta gure gorputzean ze organok betetzen duen eginkizun hori galdetuko die.

Gure gorputzean gure taupadak aurki ditzakegu eta hori jarraituz kolpekatu. Pertsonen bihotzak, ukitzean, pultsu berdina jarraitzen dute.

Pultsu komunari berriro ekingo diogu eta gure izenak esango ditugu.


Izen artistikoa

La persona mediadora dice su nombre y pregunta que saben de ella, a que ha venido, que es lo que van a realizar para ir calentando motores.

- -LEHENENGO FASEA: Sokarekin bere alegiazko abizenaren lehenengo letra marraztuko dute. Abizena bere ezaugarri bat kontuan izanda sortuko dute.
- -BIGARREN FASEA: Alboko lekura mugituko dira eta lagunaren lehenengo hizkiaren aurrean eseriko dira. Letra hori bigarren alegiazko abizen bat sortzeko erabiliko dute.
- -HIRUGARREN FASEA: Bere izena eta alegiazko abizenak aurkeztuko dituzte argi eta presentziarekin. Biribilaren erdian aurkeztu daitezke beldurrei aurre eginez.

Korapilatatuak

- **ARMIARMA:** Zutunik harila bata besteari emango diote bakoitzak hari zati bat oratuz, haria jasoko duen pertsonaren izena eta alegiazko abizenak esan ditzakete.
- **SAREA MUGITU:** Ibiltzen hasiko dira, sarea gehiegi estutu edo lasaitu gabe. Kooperazioari buruzko talde-ondorioak lortzea interesgarri gerta daiteke.
- **OREKARIAK:** Harien gainean orekariak balira bezala ibili daitezke edota hutsuneen artean saltoka ibili.
- **EZINEZKO ZEREGINA:** Bi partaidetik bat makurtu egingo da. Bik haria soltatuko dute, albokoak oratu dezake. Sarearen arrisku guztiei aurre egin beharko diete sarea ukitu gabe beste aldera heldu arte.



- **KORAPILOAK:** Harila berregiten saiatuko dira sarea askatuz. Korapiloak egon daitezke eta oso interesgarria izan daiteke hauei nola aurre egiten dieten ikustea. Zailtasunen aurrean zer egin behar denaren buruzko hausnarketa saihestezina da. Lasaitasuna, arreta, pazientzia eta iraunkortasuna.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Kooperarock

- Zer egin berri dute harila batzean? Talde-lana, elkarlanean aritu dira. Hori da aste honetako proiektuaren ardatza. Gure interes sortzaileetatik sortzen den proposamena modu kooperatiboan osatzea. Kooperarock bitartez zuengana hurbildu nahi gara artearen bitartez sortutako kooperazioari buruz jolasteko, hitz egiteko eta sortzeko.
- Zer da kooperazioa zuen ustez?
- Eta artea?
- Nola kooperatu daiteke artearen bitartez?
- Bremengo musikarien ipuina ea ezagutzen duten galdetuko zaie. Hala bada, kontatu beharko dute, pertsona bakoitzak esaldi edo ideia bat. Ezagutzen ez badute, bitartekariak kontatuko die.

FEEDBACK

Ipuinaren ondorioak kooperazioari buruz: (bitartekariak galderak egingo ditu)

- Ipuina gustatu zaizue?
- Zergatik bai edo zergatik ez?
- Pertsonaia batekin identifikatu zarete? ¿Zergatik?
- Zein izan da gehien gustatu zaizuen unea? Eta gutxien?
- Ze unetan uste duzu elkarlanean aritu direla?
- Eta lapurrek, elkarlanean aritu dira? Nola?
- Lapurrak nola bilakatu dira lapur? Bere iragana imajina dezagun.

Animaliak eta lapurrak hain ezberdinak ez direla ondorioztatzea interesgarri gerta daiteke. Antzeko gatazka dute, gatazka horri aurre egiteko modua da ezberdina dena. Animaliek ebazpen konstruktiboa hartu dute; lapurrek, bestalde, suntsitzailea.

Eta aste honetan ipuinaren bukaera aldatuko bagenu?

2 EMANALDIA: ¡ESTRA, ESTRA!

ABIAN JARRI

Partaideak sartuko dira eta gelan objektu bitartekaria izkutatzen duen mendia egongo da. Oihal handi batek guztia estaliko du.

Harila mendiaren tontorrean egon daiteke.

Baliteke partaideak intuitiboki biribilaren inguruan esertzea; bestela, hori egiteko gonbitea luzatuko diegu.

Hipotesia

Bitartekariak bakarrik BAI ala EZ erantzungo die partaideen galderei.

Bere jakinmina eta irudimena piztuko da.

Zer izango al da?

Begiak itxita, egunkari orrialde bat emango zaie.

Nola usaintzen du, ze zapore du?

Nolako testura du?

Arina edo astuna da?

Emozio bat balitz, zein izango liteke?

Guztia agerian geratuko da

Gelan ea aztirik dagoen galdetuko da. Badago, eszenatokira irtengo da; bestela, borondatezko pertsona bat aukeratuko da.

- Ikusleak prestatuko dituzte, nola daude ikusleak antzerkira magia ikusten doazenean? (isilik, arretarekin, hunkituta, txundituta...) emozio hauen maskarekin jolastuko dugu.
- Eta nola dago aztia? Lotsati, bere besoak gurutzatuak al daude? Bere barne botere magikoa ateratzen lagunduko diegu (presentzia).
- -Aztiak izara azpian dagoen misterioa argituko du eta ikusleek harridura aurpegi jarriko dute txaloaldi handi batera heldu arte. Aztiak agurtuko ditu.
- Danbor-arradak gehitu daitezke zoruan eskuekin joz, misterio musika...
- Bukatzeko, edozein ekintza artistikoan, bizipenetan ere, irekiera, entrega eta lilura izatearen beharra nabarmenduko da.

Hau egungakia da

- **ERREALA:** Biribilean, banaka egunkari orrialde batek izan ditzakeen erabilerak esango ditugu eta guztiek modu horretan erabiliko dituzte (irakurri, bokatak biltzeko, euria ari duenean burua estaltzeko...)
- **ALEGIAZKOA:** Egunkaria imajinatutako zerbait bihurtuko dute, albokoari emango diote eta honek aurrekoak bezala erabiliko du eta, sorginkeriaz, zerbait berri bilakatuko da (bolantea, txanoa, alfonbra magikoa, skate bat...)



Egunkariren alkimia: Bitartekariak pizgailu bat eta ura duen ontzi bat izango du. Lehenik, egunkari zati bat ebakiko du eta uretan murgilduko du. Partaideek prozesua behatu ahal izango dute eta fisikoki egunkari busti hori bilakatu.

Suarekin berdina egingo da.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Espazio inspiratzaileak

Gelan zehar ibiltzen hasiko dira eta norbait egunkari mendira hurbiltzen denean ideia argi batekin izan behar da. Besteak dauden lekuan geldituko dira eta protagonistak egiten duena begiratuko dute. Honek espazio bat sortuko du bere gorputzarekin (itsasoa, mendia, elurra, basamortua...)

Zure nire beste neu al zara??

- 4 metroz banatutako bi espazio sortuko ditugu, egunkariak baldosak balira erabilia bi ilara sortu daitezke ere.
- Taldearen erdiak beste erdiaren aurrean jarriko da. Batzuk animaliak izango dira eta besteak, lapurrak.
- Bakoitzak nahi duten animalia edo pertsonaren itxura hartuko du (astoak, txakurrak, katuak, emakumeak, umeak, adineko pertsonak, itsuak, herrenak, oldarkorrek, melengak...)
- -Bere sorkuntza garatzeko denbora izango dute (nola jan, lo egin, hitz egin, ibili...)
- Nola diren argi daukatenean, guztiak aldi berean beste espaziorantz abiatuko dira aukeratutako moduan, bestea bilakatzen pixkanaka-pixkanaka.

- Proposatutako ipuinaren bukaera aldatu dezakete. Topo egitean gelditzea eta bestea behatzea proposatzen zaie transformazioa baino lehenago zerbait gerta dadin. Ekintza bat, hitz bat... zerbait.

FEEDBACK

- Biribil batean eserita, partaide bakoitzari nola sentitu den galdetuko zaio. Bestearen lekuan jartzea erraza edo zaila izan bada.
- Nola izan da topaketa? Gatazkarik, adiskidetasunik.. sortu al da?

3. EMANALDIA: MUSEOA

ABIAN JARRI

Partaideak sartuko dira eta espazioan modu ez arruntean kokatuta dauden aulkiekin eta soketan pintzak erabiliz zintzilik dauden egunkariekin sorturiko instalazio batzuk egongo dira. Instalazio bakoitza ezberdina izango da.

Espazioa behatuko dute eta elkarri eragin. Instalazioan parte hartzen duten leku batean koka daitezke.

Bururarazten zaiena esan dezakete. Merkatu bat, enparantza bat, museo bat... izan daiteke.

Estatuak



Noizbait ea estatua baten bat ikusi duten galdetuko zaie. Nolakoak dira? Adierazkorrak, guztiz geldirik daude eta zerbait garrantzitsua esan nahi digute. Musikarekin eta espazioa kontuan hartuta estatuak sortzera jolastuko dugu. Aldarte ezberdinak dituen musika jarri dezakegu (Lowren Lullaby, Mobyren Honey, etab.) Musika gelditzen den bakoitzean, bitartekaria estatua batengana hurbilduko da kili kiliak egiteko eta, horrela, guztiz geldirik dagoen ala ez egiaztatzeko.

Proposamen interesgarririk balego, besteak stop unea apurtuko dute behatzen hurbiltzeko. Sorkuntza izendatu daiteke.

Ariketa hau modu askotan alda daiteke:

- Bi, hiru, bost... pertsonen osatutako estatuak.
- Argi ez dauden proposamenak hobetuko dituzten eskultore bat edo bi egon daitezke.
- Animaliak, lapurrak, musikariak, albistea, merkatua... bezalako gaiak proposatu daitezke.
- Estatua batzuei ekintza bat eman ahal zaie egoera bat sortu dezaten. Bestela, bitartekariak elkarrizketa egin ahal die (Nor zara? Zer egiten duzu hemen? Zein da gustukoena duzun kolorea? Nola deitzen da zure txakurra?...)

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Espazio zoroak

- Taldeak sortuko dira eta aurretiaz sortutako espazioa erabili dezakete edota guztiz aldatu. Hasiera argia, gatazka eta ebazpen argia duen inprobisazioa sortu behar dute.
- Inprobisazioak lotuko dira, talde batek bukatzean hurrengoa hasiz. Hori dela eta, argi hasi, garatu eta bukatzearen garrantzia nabarmenduko da.
- Guztiak bukatutakoan, hobekuntzak proposatuko dira, hala nola, aluago hitz egin, bizkarra ez eman, argiago hitz egin, etab.

Estatua intelektual.

- Eszenatokira hiru pertsona irtengo dira. Bat estatua izango da eta aulki baten gainean jarriko da. Adierazkorra eta interesgarria izan behar da.
- Beste pertsona bere txakurrarekin ibiltzen joango da eta estatuaren azpian eseri egingo da egunkaria irakurtzeko.
- Estatuari egunkariak esaten duena jakinmin handia sorraraziko dio eta izaki biziduna bilakatuko da. Paseatzaileak zerbait arraroa nabaritzen duen bakoitzean estatua izoztu egin beharko da. Bukaera bat bilatuko dute.
- Txakurrak elkarri eragingo dio arreta kendu gabe.



Albistegia

- Eszenatokira hiru pertsona irtengo dira.
- Batek albistegi bateko berri bat aurkeztuko du imajinatutako hizkuntza bat erabiliz.
- Bigarrenak hizkuntza arrunta batera itzuliko du.
- Hirugarrenak berria zeinuz azalduko du.

FEEDBACK

Guda eta bakea

- -Bi talde egin eta egunkariak banatuko dira. Minutu bat izango dute egin ditzaketen pilota guztiak egiteko.
- -Bitartekariak bi taldeen artean zoruan marra bat sortuko du egunkariak erabiliz.
- -Ipuinean bezala, borroka bat egongo da.
- -Beste taldeari arma guztiak jaurtitzen badizkiote, arma gabe geldituko direla esango zaie.
- Jarraibidea: borrokarik balego, talde bat pilota gabe geratzen bada edo bitartekariak horrela onetsiko balu, gelditu egin behar dira eta, adrenalina guztia gorputzean dutelarik, guztiak erdigunera joango dira eta egunkari batetan beste taldeko kide batekin jarriko dira. 40 segundoz begietara begiratuko diote elkarri bestearen begietan erantzuna bilatuz.
- -Behin denbora igaro denean, bitartekariak nola sentitzen diren, zer egiteko gogoia duten eta ea gatazka hori konpondu dezaketen galdetuko die. Guztien artean amaiera bat asmatu beharko dute, ekintza bat.

PROPOSAMENEK SENTIBERATASUNA GEHITU DEZAKETE EKINTZA OSO TXOLINA GERTATUKO BALITZ.

- Bitartekaria honelako gauzak esan ditzake: etxea suntsiturik dago borroka dela eta, gose gara, hotz gara, etab.
- Musika jarri daiteke isiltasun unean (Zea Mays-en Elektrizitatea edo Mobyren Why does my heart feel so bad)

4 EMANALDIA: SHOW MUST GO ON

ABIAN JARRI

Partaideak sartzean partaide bakoitzeko egunkari orrialde lau batez egindako biribila egongo da. Zoruan etzanda, musika lasaia ipiniko dugu (Mobyren Natural Blues).

Egun on, arratsalde on, gabon

Gorputzak esnatzen doaz, artikulazio guztiak mugituz zutunik jarri arte. Modu ezberdinetan agurtzen dugu elkar.

Nahi duenak berotze mugimenduak proposa dezake eta besteek bera jarraituko dute.

Motor zatia

Bitartekariak potentzia handiko motorra aurkitzea eta ganean igotzea proposatuko die.

Ahots-beroketa motorra abiaraziz: Brrrrrrrrrrrrrrrrrr

Altura ezberdinekin (aldapak), glissandoekin (kurbak), intentsitateekin, (abiadura), istripuak (inprobisazioa) ... jolastuko dugu.

Gorputz perkisioa

Bitartekariak patroirritmiko erraza proposatuko du eskuekin, oinekin eta txilibituekin eta besteek erritmo errepikatuko dute.

Nahi duenak zerbait proposa dezake eta besteek bera jarraituko dute.


Hainbat modutan korapilatu dezakegu, hala nola, mihiarekin egindako soinuak gehituz.

Egunkarien orkestra mundiala

Partaide bakoitzak egunkari orrialde bat hartuko dute eta soinu-esperimentaziorako denbora izango du.

Denbora igarotakoan, bere aurkikuntzak eta zein gustatu zaie gehien zalduko dute eta besteak errepikatzen saiatuko dira.

Bitartekariak galdera bat proposatuko du: Musika egoteko zein da egon behar den ezaugarria? Isiltasuna.



Guztien artean isiltasunean hasiko den pieza bat sortuko dute. In crescendo joango da eta isiltasunean bukatuko da. Grabatu ondoren, entzun eta berari buruz mintzatuko dira

Hausnarketak:

Zarata eta musikaren arteko ezberdintasunei buruz hausnartu daiteke.

Talde txikiak sortu ahal dira kontzertu bat egin dezaten.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Hari muturrak lotu

Aurretiaz egindako guztia errepasatuko dugu eta ea loturarik dagoen aztertuko dugu. Gehien gustatu zaiguna aztertuko dugu eta hori abiapuntutzat hartuta zerbait nola sortu dezakegun ikusiko dugu.

Gogorarazten zaie:

- Espazioen sorkuntza objektuak erabiliz
- Objektuen transformazioa
- Pertsonen transformazioa
- Inprobisazioak
- Guda eta bakea
- Musika



Elementu guztiak erabiliz talde-sorkuntza bat egitea proposatuko zaie. Pertsona guztiek ez dute gauza bera egin behar, norbaitek zuzendu dezake ideia argi bat badu, beste batzuk musika antolatu, beste batzuk jantziak...

Bilera honetan kontatu nahi dugunaren eskema, erabiliko ditugun elementuak eta sortuko ditugun espazioak antolatu beharko dira.

Taldeka lanean arituko dira eta bitartekariak behar dutenean lagunduko die. 10 minutu izango dute lanean aritzeko eta, ondoren, sortutakoa erakutsiko dute. Zoriondu eta hobekuntzak proposatuko ditugu.

Garrantzitsua da zaratarekin sortzea ezinezkoa dela nabarmentzea. Guztiek hitz egin dezakete, baina baxu hitz eginez.

FUNTZIONATU DEZAKETEN PROPOSAMENAK:

- Merkatu bat edo enparantza non gaur egun albisteei buruz hitz egiten den, edo non animalari/musikari eta lapurren artean gertatu denari buruz mintzatzen diren. Bat-batean, pertsonaiak agertu ahal dira eta berria ezeztatu, informazio gehiago eman, kontzertu bat eman...



- Albistegi bat non musikarien istorioari buruz ikuspuntu gehiago ematen diren, lapurrei elkarrizketa egin, musikarien kontzertu bat...
- "Bremengo musikarien" bertsio ezberdina

FEEDBACK

Bilkura orokorra

Ikasketak, zailtasunak eta lana nolakoak izan diren partekatu.

Bihar ze material beharko dugu?

Kontuz! Enborra!

- Guztiak zoruan etzanda, ahoz gora, buruaren gainetik luzatuko dituzte besoak.
- Gorputz guztiak oso hurbil egon behar dira.
- Ilarako lehenengo pertsona zutunik jarriko da eta ahoz behera etzango da, lagunaren aldaken gainean, eta besoak luzatuko ditu.
- Hiru kontatutakoan, goian dagoena ezkerreko hanka gurutzatuko du eskumakoaren gainean eta eskumatara buelta erdia emango du. Horrela, goian dagoena ilararen bukaera arte biraka joango da.
- Jarraibideak: guztiak oso hurbil, bata besteari entzuten eta aldi berean bueltaka egiten ez badute, ez du funtzionatuko.

5 EMANALDIA ¡AY, QUE NERVIOS! EDO IT'S THE FINAL COUNDOWN

ABIAN JARRI

Partaide guztiak sartuko dira eta espazioan bitartekaria bakarrik egongo da, lurrean eserita harilarekin jolasean.

Bitartekari jasotzaileak

Zenbat pisatzen duten eta beraiek baino askoz ere gehiago pisatzen badu bera altxatu ahal izango duten galdetuko die bitartekariak.

Nahiz eta saiatu, oso zaila da lortzea. Bitartekariak lortzea oso zaila izango zaiela uste duela esan ahal die.

Bitartekariak nola lortu ahal duten azalduko die.

- Bitartekaria eserita egongo da belauna tolestuta eta oinak zoruan dituelarik. Besoak aurrerantz luzatuko ditu.
- Bi partaide sorbalden ondoan jarri beharko dira, bata bestearen aurrean, eta beste biak belaunen ondoan.
- Jasotzaile bakoitzak eskuak batuko ditu eta sorbalden ondoan daudenak besapeen azpian jarriko dituzte eta belaunen ondokoak, belaunen azpian.
- Hiru kontatutakoan, oso erraz altxatuko dute.
- Beraien artean frogatuko dute.
- Ondorioak:



- Pisua banatzen bada askoz ere errazagoa da.
- Zailtasun baten aurrean pentsatu eta hausnartzen bada, errazagoa da.
- Guztiak errazagoa dela uste badute, errazagoa izango da.

Adi, prest ...

- Espazioak, jantziak, materiala... prestatuko dituzte.
- Zarata gehiegi ez egiten saiatu behar direla nabarmenduko da. Kaosa badago, kontzentrazioa oso zaila gertatzen da.
- Azken entsegua eta azken agurra. Oso garrantzitsua da gauzek hasiera, garapena eta bukaera izan behar dutela nabarmentzea.
- Talde besarkada edo adorea.

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Ikusleen aurrean gure proposamena antzeztuko dugu. Beste talde bat, gurasoak, irakasleak, adineko pertsonen egoitza... izan daitezke



FEEDBACK

Termometroa

Espazioan marra bat zehaztuko da. Ertz bat egia izango da eta bestea, gezurra. Egia eta gezurraren artean iritzi eta sentazio pilo bat daudela nabarmenduko dugu.

Bitartekariak esaldiak esango ditu eta partaideak marran zehar jarriko dira, eztabaida sortuz eta ze eduki bereganatu diren eta zeintzuk ez aztertuz.

- Kooperazioa eta laguntza gauza bera dira
- Laguntza kooperazioa da
- Kooperazioa egoteko gutxienez bi pertsona egon behar dira
- Kooperazioa nik nahi dudana egitea da
- Ikastolan bakarrik kooperatu daiteke
- Jantokian ezin daiteke kooperatu
- Monologoak egiten lan egiten baduzu, ezin duzu kooperatu
- Kooperatzeko pozik egon behar da
- Kooperatzea denok elkarrekin opera egitea da
- Kooperazio transmititzeko zer egin behar da... (hitzak esango dituzte)

Marrazki kooperatiboa

Bakoitzak marrazki pertsonal bat egingo du orri batean. Bata besteari emango diote osatzeko bitartekariak hala esaten duenean (minutu bat). Sortzaileak esan nahi izan duenari mugatuko dira, osatu, boikot egin edota inposatu gabe.


Emoji

Espazioan zehar kolore ezberdineko mahai-zapiak eta kartulinak jarriko dira, bakoitza emanaldi batena izango da eta emanaldiaren izena izango du.

1. Aurkezpena + sare jolasak
2. Materialari buruzko ikerketa
3. Inprobisazioei eta espazioari buruzko ikerketa
4. Zehazpena
5. Estreinu mundiala

Emotikonoak ipini (ez bakarrik alai edo triste, aspertuta, interesgarria, txundituta... gehitu).

Bakoitzak berea jarritakoan, kartulinen emaitzari buruzko balorazio orokorra egingo da.



FEEDBACK

Indar gurpila

Guztiak zoruan eserita daudelarik biribil bat osatuz, harila jarriko dugu.

Harila bata bestari emango diote eta ea gozatu duten, norbaiti edo bere buruei zerbait eskertzeko duten esango dute.

Bitartekariak benetan eskertuko die bere partaidetza eta konpromisoa.

